


/ Nabarmentzekoak

- > Udaltzaingoak segurtasunari buruzko hitzaldiak emango dizkie udalerriko adinekoei (2. or.)
- > Auzotarren Eguna eta Corpus Christi ospakizuna Portu Zaharrean (3. or.)
- > Aukeran, Getxo kirolak kirol zerbitzu berria (5. or.)



*Getxo Folkek
Benito Lertxundi
omenduko du

(4. or.)

Ondarreta Abesbatzaren Lagunen kontzertua. Ostirala 27, 19:30h, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan (gonbidapenak txarteldegian 45 minutu lehenago).

Getxo Eszena Kalean. Dantza. Larunbata 28, 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Mover montañas", Alberto Velascoekin. Sarrera doan.

**A-
GENDA**

Iturribarrin alokairuko 53 BOE esleitzeko eskabideak aurkezteko epea zabalik dago

Uztailaren 4ra arte aurkeztu ahal izango dira Algortako Iturribarrin Babes Ofizialeko 53 etxebizitza (erregimen orokorra) errentamendu-erregimenean esleitzeko prozeduran parte hartzeko eskabideak. Esleitu diren 53 etxebizitzetaz gain, beste 5 etxebizitza birkokatze-beharretarako erabili dira. 53 etxebizitza horietatik, 2 mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonentzat egokituta daude. Gainerako 51 etxebizitzetatik, 40 bi logelakoak dira, 49 eta 65 m² bitartekoak, eta 11 etxebizitza hiru logelakoak dira, 80 eta 82 m² bitartekoak.

Baldintzak

Etxebizitza horiek eskuratu ahal dituzten pertsonak, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta



emanda egon beharko dute alokairuko eskatzaile gisa Getxon; eskaeraren titularretako batek, gutxienez, Getxon erroldatuta egon behar du, 3 urteko antzinatekin (etenik gabe), edo azken 10 urteetan 5 urteko antzinatekin, txandaka, 2025eko

ekainaren 17an; gainera, 2023. urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak ezin dira izan 9.000 euro baino txikiagoak eta 45.022,57 euro baino handiagoak; bizikidetzaren unitatea ezin da 6 kide baino gehiagokoa izan; eta bizikidetzaren unitateko pertsona guztiak ezin

izango dute etxebizitarik eduki jabetzan, azalera-eskubidean edo usufuktuan ekainaren 17an.

Eskabideak honako modu hauean aurkez daitezke: Etxebiden, telematikoki (<https://labur.eus/g0oishsa>); Zuzenean-en hitzordua eskatuta (Kale Nagusia 85, behe, Bilbo); postaz Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Kale Nagusia 85, 6. solairua, Bilbo); edo Herritarren Arretarako Bulegoetan, Torrenoko 3.ean, Algortan, eta Las Mercedesko 13.ean, Areetan (aurretiko hitzordurik behar ez den arren, arreta hobia izateko, Call Centerren (010) edo udalaren webgunean eskatzea gomendatzen da).

Informazio gehiago:

www.etxebide.euskadi.eus

Udako solstizio jaia San Juan gauean

Udako solstizio jaia ospatuko da berriro San Juan gauan, astelehenan, hilak 23, Algortako San Nikolas plazan. Ohi bezala, familiarrentzako jaia izango da, Abian, ALBE, Eskubeltz, Egizu, Getxo-ko Etorrinak Federazioa, Haria eten barik, Itxartu, Mujeres con Voz eta San Nikolas Zabalik elkarteek antolatuta, Udalaren eta Azebarri Kultur Elkartearen laguntzarekin.

Egitaraua 18:00etan hasiko da umeentzako aurpegia margozteko tailerrarekin eta ondoren disko festa, Boliviako eta Filipinetako dantzak eta txokolate jana izango dira. 20:30ean bertsolarien saioa izango da eta amaitutakoan, 21:00ak aldera, konjuria, Urdiaingo San Juan Kantaita eta dantzak suaren inguruan helduko dira.

San Juan gauaren beste ohiko ospakizun batzuk izango dira, Itxas

Argiarena Malakaten eta Zubillaita jaien egitarauaren barrukoa.

Segurtasuna eta prebentzioa

Bestalde, aurrekoetan bezala, Udaltzaingoak baimenik gabeko suteak egiten dituzten pertsonak zelatatuko eta zigortuko ditu as-

telehen arratsaldean eta gauean, hilaren 23an. Aldi berean, suteen erretze kontrolatua zainduko dute agenteek, istripuak ekiditeko. Udaltzaingoak, Ertzaintzaren laguntzarekin, prebentzio zerbitzua ere jarriko du martxan hondartzetatik gertuen dauden

udalerriko tokietan, eta horien presentzia handituko du ospakizun tokietan, gerta daitezkeen istiluak eta herritarrentzako arazorik ekidite aldera.

Adingabeei alkohola konfiskatzea eta debekatutako lekuetan kontsumitzea galaraztea indartuko da. Beste behin ere, gogoratzen da egokia dela hondartzara balioko ezer edota sakelako telefonorik ez eramatea; eta eramatekotan, banakako segurtasun neurriak areagotu beharko direla, eramandako gauzak uneoro kontrolpean edukitzeko. Era berean, Udaleko Babes Zibilak Artatzako Suhiltzaileen Baseari jakinarazi dio Getxon suarekin baimendutako ekitaldiak egingo direla.

Azkenik, Udalak berriro eskatu du jaia, beste guztiak bezala, indarkeria matxistarik gabeko ospakizuna izan behar dela.





EKAINAK 19 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Abentura ziragarriak", Perli eta Koxkolorekin. 5-10 urte. Doan.

Literatura solasaldia. 19:45ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Pedro Ugarteren "Un lugar mejor" eleberrari buruzko literatura solasaldia (gaztelaniaz).

Getxon Zaindu hitzaldia. 17:00etan, Gobelaurreko Bolondres zentroan. "Transferentzia eta mobilizazio seguruak", Maria Rubio gerokultorearekin, zaintzaileentzat, gaztelaniaz. Udalak antolatuta. Izenematea: 683 193 092 (Whatsapp).

ELArri buruzko hitzaldia. 18:00etan, Getxo Elkartearen, ELAren Munduko Eguna dela eta. Zenbait medikuk eta gaixotasuna duen pertsona batek hitz egingo dute. Doako sarbidea lekuak bete arte..

EKAINAK 20 OSTIRALA

San Juan jaiak. Zubileta. 17:00etan txupinazoa. Egitaraua: <https://labur.eus/xytcghvh>

Kontzertua. 19:45ean, Santa Ana parrokian, Corpus Christiren kontzertua, Ars Canticum Ensemble taldearekin.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Manólogo" (gaztelaniaz), umorezko bakarriketa Irantzu Varelarekin. Sarrerak agortuta.

Getxophoto. Gaueko bisita (gaztelaniaz), 21:30ean, irteera InfoGonetik-Algortako Azoka. 5€. www.getxophoto.com

Tailerra. "Tecnologías a mi favor". 18:00etan, Gurari Emakumeen Etxean. Mujeres con Voz, Getxoko Etorraren eta Irupé elkarteak antolatuta. Doako izen-ematea: <https://labur.eus/g7czscac>.

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica: sobre el Concierto El Jardín de las Delicias". Hizlaria: Diego de Amigo (biolinista, konpositorea eta Barakaldoko eta Gasteizko konserbatorioetako irakaslea). www.allantika.org

EKAINAK 21 LARUNBATA

San Juan jaiak. Zubileta. Egitaraua: <https://labur.eus/xytcghvh>

Auzotarren eguna. Portu Zaharrean, Etxetxun, 12:00etan, tartalehiaketa, tailerrak, mahai-ingurua eta ideia-lehiaketa. Antolatzailea: Portu Zaharreko auzotarren elkar-tea.

Antzinako musikaren kontzertu antzeztua. 12:00etan, Muxikebarrin, "El jardín de las delicias", All'Antica Musika taldearekin. 6€.

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Kalakan & Musikalia. 3€.

Getxo Eszena Kalean. Dantza. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Atearen bestaldean", Hika Teatroarekin. Sarrera doan.

Getxophoto. Larunbatak erdigunetik (euskaraz), 11:30ean, irteera InfoGonetik-Algortako azoka. 5€. www.getxophoto.com

EKAINAK 22 IGANDEA

Corpus Christi. Portu Zaharrean, Etxetxun, 12:00etan, meza. Ondoren, Biotz Alai abesbatzak girotutako sardina-jana. 17:00etan Los Cinco Bilbainosen saioa eta 18:30ean Getxoko Marching Bandaren emanaldia.

San Juan jaiak. Zubileta. Egitaraua: <https://labur.eus/xytcghvh>

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarri aurrean, Mikel Urretagoiena Trio. Sarrera doan.

Kontzertua. 18:00etan, Muxikebarrin, "Akordeoiak & Rock banda", Pentagrama Kultur Elkartearekin. 3€.

Getxophoto. Igandeak hondartzatik (gaztelaniaz), 11:30ean, irteera Punta Begoña Galeriatatik. 5€. www.getxophoto.com

EKAINAK 23 ASTELEHENA

San Juan gaua. San Nikolas plaza, Zubileta eta Malakate. Egitaraua: <https://labur.eus/xytcghvh>

EKAINAK 24 ASTEARTEA

Getxon Zaindu hizaldia. 12:00etan, Gobelaurreko Bolondres zentroan. "Mina eta demenzia", Iñaki Artaza mediku geriatrarekin, zaintzaileentzat, gaztelaniaz. Udalak antolatuta. Izenematea: 683 193 092 (Whatsapp).

EKAINAK 26 OSTEGUNA

Getxon Zaindu hizaldia. 12:00etan, Urgull z/g-koan. "Mina eta demenzia", Iñaki Artaza mediku geriatrarekin, zaintzaileentzat, gaztelaniaz. Udalak antolatuta. Izenematea: 683 193 092 (Whatsapp).

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Hermafroditas a caballo o la rebelión del deseo", Colectivo que no salga de aquí taldearekin. 8€.

EKAINAK 27 OSTIRALA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Helen Keller, ¿la mujer maravilla?, Chévere taldearekin. 8€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Ondarreta abesbatzaren XVIII. Lagunen Kontzertua (gonbidapenak txarteldegian, 45 minutu lehenago).

EKAINAK 28 LARUNBATA

Etxe Merkeen mendeurrena. 13:00etatik aurrera, General Etxague k. (RKEko plazaren kantoian). Oroitzapenezko plaka jartzea, Romoko bistulari eta Otxotea, dantzak Zasi Eskolaekin eta mokadotxo.

Getxo Eszena Kalean. Dantza. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Mover montañas", Alberto Velascorekin. Sarrera doan.

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Kitflus Ensemble Jazz. 8€.

EKAINAK 29 IGANDEA

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarri aurrean, The Cherry Boppers. Sarrera doan.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Putzua begi bistan", Cía Utopian taldearekin. 5€.

Udaltzaingoa segurtasunari buruzko hitzaldiak emango dizkie udalerriko adinekoei

Udaltzaingoa bide-segurtasunari eta herritarren segurtasunari buruzko prestakuntza-hitzaldiak emango dizkie udalerriko adinekoei. Ekimen honen helburua da, alde batetik, istripuak prebenitzen saiatzea (harrapatzeak...) eta, bestetik, bide publikoen segurtasuna eta arintasuna hobetzea edozein egoeratan, bai oinezkoena, bai garraio publiko edo pribatuaren erabiltzaileena. Era berean, hainbat delituen biktima izatea saihestu nahi da, hala nola etxean edo bide publikoan egindako lapurretena, iruzurrena, Internet bidez egindako delituena, etab.

Keltse Eiguren Segurtasuneko zinegotziak adiera-



zi duenez, "ekimen honen helburua da adinekoei aholkatzea zer prebentzio-neurri har ditzaketen bide publikoan istripurik ez gertatzeko edo delituen biktima ez izateko, eta beren eguneroko bizitza sozialetik kanpoko edozein egoerari adi egoteko gomendatzeko".

Hitzaldiak elkarre hauen egoitzetan emango dira: ostegunean, ekainak 19, Algortako AJANE-Algortako Jubilatuen Elkartearen, Andra Mariko Urte Alaiak-en (ekainak 25) eta Romoko Ibar Nagusien Etxean (uztailak 3). Egokitzen jotzen badute, uda ostean ere errepika daitezke.

Getxo Kulturak 154.000 euro bideratu ditu aurten kultur elkarreentzat

Udalerriko 19 kultura-elkartek jasoko dute aurten Getxo Kulturaren diru-laguntza, guztira 154.000 euro, beren ohiko jardura garatu ahal izateko. Laguntza-programa udal-elkartearen erregistroan alta emanda dauden eta egoitza Getxon duten bertoko kolektiboak zuzenduta dago, baldin eta irabazi-asmorik gabeko jardura bat egiten badute eta udalerriarren intereseko jarduerak antolatzen badituzte.

Laguntzak emateko, honako irizpide hauek hartzen dira kontuan: proiektuen kalitatea eta interesa; proiektuen bideragarritasun ekonomiko; berdintasuna, kulturartekotasuna eta integrazio soziokulturala, eta euskararen erabilera.

Laguntza programaren azken edizio honetan hauek izan dira laguntzak jaso dituzten elkarteak: Ondarreta (8.953€), Agurra Taldea (15.818€), Antzeza-

leak (9.601€), Aretxondo (2.336€), Ballet Joven Arterderra (10.473€), Amigos del Órgano Merklin (1.723€), Allantika Musika (2.239€), Basozaleak (2.845€), Bentaranoa (13.280€), Berantzagi (4.375€), Biotz Alai (7.311€), Irutasun (4.643€), Eskuz-Esku (14.407€), Itxas Argia (14.250€), Itxartu (Abesbatza 6.693€, Antzerkia 4.630€, eta Dantza 6.985€), Kimetz (1.313€), Lilura (6.843€), Zasi Eskola (9.230€) eta Zozoak (6.042€).

Getxok Transpirenaica Social Solidarian hartu du parte berriro

Carmen Díaz Gizarte Kohe-sioko zinegotzia izan zen ostiralean, hilak 13, Transpirenaica Social Solidaria zeharkaldian parte hartu duten gazteei eskainitako gosarian. Izen bereko elkarteak antolatutako Zeharkaldiko partaideek Romoko Topagu-

ne zentroan gosaldia zuten, ekimenarekin bat egin duen Pertsonalde GKEaren eskutik antolatuta.

Transpirenaica Pirinioak mendebaldetik ekialdera zeharkatzen dituen hezkuntza-proiektu bat da, kalte

beratasun-egoeran dauden gazteentzako gizarte eraldatzeko, elkartzeko eta aukerarako gune gisa. *Nire gatazka, nire aukera* lelopean, jardura Hondarribiko Higer lurmuturretik irten zen eta uztailearen 15ean amaituko da Cap de Creusen. Aurtengo edizioan, udalerriko hondartza batean hartutako Kantauriko ura Mediterraneora eraman zuten Getxoko hiru gazte izan ziren Zeharkaldiaren lehen zatian. Horiek Udalak bultzatutako gizarteratze-prozesuetan parte hartzen dute, besteak beste aipatutako GKEak garatutako Kalteberatasunari Laguntzeko Programaren bidez.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87



Sarrerak agortu dira Irantzu Varelaren “Manólogo” ikuskizunarentzat

Irantzu Varela kazetari eta militante feminista Muxikebarriko agertokian izango da ostiral honetan, hilak 20, *Manólogo* ikuskizuna taularatzeko. Sarrerak agortu egin dira.

20:00etatik aurrera, *“bakeaz eta kondeszendentziak zein nazkatuta gauden, munduak indarkeria, misoginia eta maskulinitatearekiko gurtza eskaintzen digunean”* azalduko digu bakarrizketa komiko honek. Itzulitururik eta mozorrorik gabe egingo du; hozka egiten duten hitzekin, jotzen duten egiekin

eta gutxien espero duzun lekuan lehertzen diren algarekin. Argi dauka: errealitatea deserosoa bada, hobe ironia zorrotzarekin eta pentsamendu sugarrarekin aurre egitea.

Irantzu Varelaren ustez, *“barre egitea kontzientzia eta amorrua pizteko modu bat da, baina baita justizia saihesteko modu bat ere, ez gaitzabela serio hartu. Ikuskizun hau fantasia bortitzetik eta beren gorputzak eta hitzak beste armarik erabili ez dutenen barreetatik egindako bidaia da. Oraingo”*.

Auzotarren Eguna eta Corpus Christi ospakizuna Portu Zaharrean

Portu Zaharrak bere ospakizun maitagarrienetako bi hartuko ditu asteburu honetan. Larunbatean, hilak 21, Auzotarren Eguna izango da. Auzoko elkarteak antolatuta, bere bizilagunen topaketa bultzatzea du helburu, inguru-nea hobetzeko balioko duten alderdiak eztabaidatzeko. Besteak beste, 12:00etatik aurrera, ibilaldi bat egingo dute etxeetako lore dekorazioa baloratzeko, eta tarta lehiaketa bat egingo dute. Sari banaketaren ondoren, auzoari buruzko ideien lehiaketa bat egingo da mahai-inguru batean.

Hurrengo egunean, hilaren 22an, igandean, Corpus Christi ospatuko da. Ehun urteko jaia da, eta 1870az geroztiko datuak daude. Ohitura denez, meza egingo da 12:00etan, Etxetxun.



Argazkia: Getxoko liburutegiak

Ondoren, 13:00etatik aurrera, sardina jana izango da, Biotz Alai abesbatzaren abestiek girotuta.

Arratsaldean, 17:00etatik aurrera, Los Cinco Bilbainos talde ezaguna arituko da eta eguna Getxoko Marching Band taldearen emaldiarekin amaituko da.

“Hermafroditas”, intersexualitatea ikusarazteko oihu eszenikoa

Datorren ostegunean, ekainaren 26an, Que no salga de aquí kolektiboak *Hermafroditas a caballo o la rebelión del deseo* oihu eszenikoa taularatuko du Muxikebarrin. Oihu eszeniko horrek antzerki dokumentala eta freak show-a nahasten ditu, pertsona intersexualen esperientzia ezagutarazteko, ikusarazteko eta kontatzeko.

Araua desafiitzen duten esmak eta gorputzak hausten dituzten identitateak erakusten dituen pieza bat da. Inposatutakoa zalantzan jartzen duen obra da,



eta aniztasuna, etiketarik gabeko existentzia eta izateko eskubidea aldarrikatzen ditu, beldurrik eta baimenik gabe.

Ikuskizuna, publiko guztientzat, Laura Vila Kremerrek interpretatzen du. 20:00etan hasiko da, eta sarrerak 8 euro balio du.



Hika Teatroak “Atearen bestaldea” antzezlanaekin ospatuko du bizitza, Areetako Geltokia plazan

Areetako Geltokia plazan, larunbatean, hilak 21, 18:30etik aurrera, *Atearen bestaldean* ikuskizuna eskainiko da, Hika Teatroa taldearen eskutik eta Getxo Eszena Kalean kaleko arte eszenikoen programaren barruan. Bidean bere atearrekin aurrera doan neska baten istorioa kontatzen du, egun batean existitu zen eta berriro bizitzea gustatuko litzaiokeen bizitza eraikitzen duten oroitzapenez betetako emakume bat, oraintxe bertan balitz bezala. Mendiak eta hiriak zeharkatzen ditu, ibaiak eta basamortuak zeharkatzen ditu, eta itsas hondoan galtzen da. Gaur, ordea, norbaiten zain dago atearren beste aldean. Egund berezia da. Bere urtebetetze egunean. Lagunduta bizitza ospatzen jarraitu beharri egindako kantua.



“Abrázame Bilbao”, Antton Basteroren eleberria, fikzio beltz gastronomikoa

Antton Basterok bere azken literatur lana aurkeztu du Algortako Kultur Etxean, Villamonten: *Abrázame Bilbao*. Istorio zirrargarria da, intrigaz betea, eta fikzio beltz gastronomikoko eleberri berri hau irakurtzen duten pertsona guztiak harrapatuko ditu. Idazlan berri hau, egileak lehenago idatzitako beste bi libururen atzetik etorri da. Bi liburu horiek, gainera, arrakastatsuak izan dira: *La banda del chipirón en su tinta* eta *El secuestro de Marijaia*. Hemen, azken eleberrian, lurpeko tunel-sare misterio bat aurkitu ondoren, Marisol kazetari gaztea Bilbori buruzko bilbea ikertzera doa. 24 ordu eskasean, gertaerak azkartu egin ziren, Malaysiatik kontrolatutako tresna elektronikoa arraroak agertu zirelako eta hainbat hilketa gertatu zirelako.

Akordeoi eta rock kontzertua

Sondikako Pentagrama Kultur Elkarteak *Akordeoiak eta Rock bandak* goiburu pean kontzertua presatatu du, igande honetan, hilaren 22an, Muxikebarrin, 18:00etatik aurrera. Sarrera: 3 euro.

Publiko guztientzat diseinatua, soinu bizi eta orekatuko hirukote bat aurkezten du, non akordeoia rock taldearen potentziarekin uztartzen den.

Ikuskizun paregabea izango da, Queen, Coldplay, Beyoncé edo The Beatlesen nazioarteko pop-rocketik hasi eta Fito Cabrales edo Eñaut Elorrieta bezalako euskal artisten kantuetaraino.

Kontzertuan Txuma Olague (Sondika) eta Kimetz (Getxo) abesbatzek eta Gorantzaileak Dantza Taldeak (Sondika) ere parte hartuko dute. Soinu zeharkaldi bat da, eta, hitzeman dute-nez, ahaztezina izango da.



Kalakan eta Musikalia, tradizioaren eta musika garaikidearen fusioa

Kalakan hirukote arrakastatsua eta Andrés Isasi Musikalia Bandak kontzertua eskainiko dute larunbatean, hilak 21, Muxikebarrin.



Getxo Folk jaialdiak Benito Lertxundiri omenaldia egingo dio "Hunkidura kuttunak" ikuskizunarekin

Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdiak 41. edizioa itxiko du datorren irailaren 14an, euskal musikagintzako artista ospetsuenetako bati, Benito Lertxundiri, omenaldia eginez. *Hunkidura kuttunak* izenburuarekin, ikuskizun honek ibilbide zirraragarri bat proposatzen dio publikoari, *Orioko Bardoa*-ren ibilbidean zehar, non, hainbat artistaren eskutik, musika, dantza eta beste diziplina artistiko batzuk elkartzen diren.

Ikuskizun honen bidez, jaialdiak Benito Lertxundiren ibilbide luze eta emankorra ohoratu nahi du omenaldi hunkigarri eta artistiko batekin. *Oriotik Euskal Herrira Benitoren abestiekin* lelopean, publikoa bidaia emozional batera eramango du, Euskal Herriko kulturaren, historiaren eta sentimenduen paisaian murgilduz, artista gipuzkoarraren abestien bidez.

Baga-Biga Produksioak ekoizte-txearen ekoizpenarekin eta Arkaitz Hormaetxe eta Jon Mayaren zuzendaritza artistikoarekin, muntaiak zortzi musikari bilduko ditu agertokian, bost gizon eta hiru emakume, beren interpretazioekin Lertxundiren abestiak eguneratu eta berpiztuko dituztenak.



Mikel Markezek, Idoia Asurmendik, Janus Lesterrek eta Miruak, besteak beste, Lertxundiren obra ulertzeko hainbat modu eskainiko dituzte ikuskizunean.

Omenaldi honen ardatz nagusia musika bada ere, *Hunkidura kuttunak* lanak diziplina anitzeko izatera du. Dantzak, bertsolaritzak eta beste adierazpen artistiko batzuek

beren lekua izango dute bertaratu-takoei esperientzia estetiko eta sakona eskaintzeko. Dantzaren esparruan, Kukai Dantza konpainiaren presentzia nabarmenduko da, bere estilo garaikide eta errotuarekin, ikuskizunari mugimendu poetikoa eta indar eszenikoa emango baitio. Jaialdirako sarrerak eta abonamenduak uztailaren 7an jarriko dira salgai.

"El jardín de las delicias", antzinako musikako kontzertu antzeztua

Larunbat honetan, hilak 21, 12:00etatik aurrera, Muxikebarrin, All 'Antica Musika talde getxotarrak *El jardín de las delicias* antzinako musika antzeztuko du.

El Boscok soinuekin margotu izan balu bezala, musikak bizia hartuko du, eta ikusleak bidaia liluragarri batera eramango ditu, debekatuta dagoenaren eta bikaina denaren artean. Hispanoamerikako eta Espainiako piezak interpretatuko dituzte antzinako instrumentuen erreplikekin. Sarrera: 6 euro.

Kontzertua Santa Anan

Bestalde, Corpus Christi Eguna dela eta, Ars Canticum Ensemble taldeak kontzertua eskainiko du Santa Ana parrokian parrokian ostiral honetan, hilak 20, ostirala, 19:45etik aurrera.



Mikel Urretagoienak "Denbora" aurkeztuko du Kristalezko Kioskoan

Mikel Urretagoiena, Ordiziako bateria-jotzailea, Xan Campos (pianoa) eta Dani Pozo (baxu elektrikoa) lagun dituela, hilaren 22an,



igandea, 13:30ean arituko da, Muxikebarrin aurrean, Kristalezko Kioskoaren programazioaren barruan. Bere bakarkako lehen lana aurkeztuko du, *Denbora*, non konpositore eta moldatzaile gisa duen alderdia erakusten duen. Goi mailako ikasketak Musikenen amaitu ondoren, Urretagoiena Holandara joan zen Jazz Bateria Masterra egitera. New Yorken ere bizi izan zen bost hilabetez, mundu mailako musikariengandik ikasten.



Programazio finkoko ikastaroetan aurreinskripzioa egiteko epea uztailaren 15era arte dago zabalik

Aukeran, Getxo Kirolak-en kirol zerbitzu berria

2025/26ko kirol-ikastaroen denboraldi berriari begira, Getxo Kirolak-ek Aukeran zerbitzu berria jarri du abian. Zerbitzu hori kirolaren udal erakundeko abonatuari zuzenduta dago, eta horiek, jarduerak bakar batean izena eman beharrean, hainbat modalitate konbinatu ahal izango dituzte, nahiago dituztenak, eta zein klasetara joan nahi duten erabaki ahal izango dute, ikastaro itxi edo finko bat aukeratu behar izan gabe. Zerbitzua irailetik aurrera eskuratu ahal izango da eta urrian hasiko da. Bi modalitatetan egongo da eskuragarri: Aukeran Plus (57 euro hilean) eta Aukeran (45,60 euro hilean).

Aukeran Plusen kasuan, 18 urtetik gorakoentzat da, eta fitness-muskulazioa gimnasioak, ziklo indoorreko eskolak, asteko masterclass bat, ordu erdiko eskola espres bat, eskola birtualak, zuzendutako indoor eskolak eta mantentze-igeriketa talde bat erabiltzeko aukera jasotzen du. Interesa duten pertsonak klaseen programazio zabala izango dute eskuragarri, eta erreserbatzeko aukera izango dute, lehentasunez eta gehienez 7 egun lehenago, bulego elektronikoaren bidez edo Fadurako eta Gobelako bulegoetan. Aukeran zerbitzua, bestalde, 14 urtetik gorakoentzat da, eta jarduerak berberak erreser-

batzeko aukera emango du, indoor eskolak izan ezik, horiek 2 ordu lehenago bakarrik erreserbatu ahal izango baitira.

Ikastaroen programazio berria eta alde aurretik izena emateko epeak Aukeran zerbitzuari lotutako eskaintza berriaz gain, Getxo Kirolak-ek jarduerak fisikoaren eta adinaren behar guztietara bideratutako 500 ikastaro baino gehiago eskainiko ditu urrian hasiko den denboraldi berrirako. Hala, eskaintza honako hauetan bereizten da: haur eta gazteentzako ikastaroak eta jarduerak, Getxoko kirol-klubek antolatutako; helduentzako ikastaroak, Getxo Kirolak-ek antolatutako; eta adinekoentzako eskaintza, Getxo Kirolak-ek antolatutako ikastaroak eta bertoko kirol-elkarteekin elkarlanean egindako beste jarduerak batzuk barne.

Aurrez izena emateko epea uztailaren 15era arte egongo da zabalik, eta plazak esleitzeko zozketa uztailaren 17an egingo da. Izena emateko Getxo Kirolakeko abonatu-txartela behar den ikastaro guztietan, izen-ematea web orriaren bidez edo Fadura eta Gobelako kiroldegietako jendearen arretarako bulegoetan egin ahal izango da. Eskaintza guztia zehatz-mehatz hemen: www.getxokirolak.eus

Walking Football Txapelketa Faduran

Getxoko Walking Lions F.C. klubak, Getxo Kirolak-en laguntzarekin, III. Getxo International Walking Football Cup (Walking Lions Saria) antolatu du asteburu honetan, larunbatean eta igandean, hilaren 21ean eta 22an, Fadurako belar naturalaren zelaian. Txapelketa +50 eta +60 katego-

rietan jokatu da eta Italiako, Frantziako, Ingalaterrako, Suediako, Portugalgo, Andaluziako, Valentziako eta Kanarietako taldeak bilduko ditu, Walking Lions F.C.z gain.

Partidak Euskaditik, Eskoziatik, Ingalaterratik eta Frantziatik etorritako nazioarteko epaileek arbitratuko dituzte. Larunbatean 9:30ean eta igandean 9:45ean hasiko dira norgehiagokak. Jendeak sarrera libre izango du.



Eskola eta hitzaldiak Yogaren Nazioarteko Egunean

Getxoko yoga zentroek, Getxo Kirolakekin batera, modalitate horretan interesa duten pertsona guztientzat topaketa irekia antolatu dute larunbat honetarako, hilak 21, Gobelako kiroldegian. Udalerriko akademiek bat egiten dute Yogaren Nazioarteko Egunarekin, eta 24 tailer eta hitzaldi antolatu dituzte publiko guztientzat, ikuspegi desberdinekin antolatu ere: yoga integrala, meditazioa, yoga in-

klusiboa eta kirtan eta mantraren kontzertua, besteak beste. Jardunaldia 9:00etan hasiko da eta 21:30ak arte iraungo du aldi berean 4 gunetan.

Jarduera guztiak doakoak izango dira, sarrera librekoak, eta ez da alde aurretik izena eman beharrik izango. Egitarau osoa ezagutu nahi duenak Getxo Kirolak-en webgunean kontsulta dezake (www.getxokirolak.eus).

“Bizilagunak mendira” ekimenak Urederrako Iturburura

Bizilagunak mendira ekimenak Nafarroako Urbasako Urederrako Iturburua bisitatuko du datorren uztailaren 6an, igandean, paseo bat egiteko eta hainbat tokitako istorioak partekatzeko. Ibilkik, Egizuk, Getxoko Etorrinen Plataforma Federazioak, Kontalarien Klubak eta Udalak antolatuta, helburua da kulturak elkartzeko guneak sortzea, baita bizikidetzaren hobetzea, partaidetza sustatzea, diskriminazioa prebenitzea eta

aniztasuna bultzatzea ere.

Autobusaren irteera 9:00etan izango da Algortatik eta 9:10ean Areatatik pasako da, 2 euroko kostu sinbolikoarekin. Pertsona interesatuek labur.eus/mendira25 loturan eman beharko dute izena, eta interesatuak plazak baino gehiago izango balira, zozketa bat egingo dute. Informazio gehiago: getxobizilagunak@gmail.com /622 433 085 o 655 603 809 (whatsapp).

Euskadiko aulki mugikorrek txapelketa ona Getxo eta Raspasentzat

Getxo Arraunek eta Raspasentzat 15 domina eskuratu zituzten hile honen 7an Legution egindako Euskadiko Aulki Mugikorrek Txapelketa. 9 domina Arriluzeko klubarentzat izan ziren: 5 urre, skiff (1x) beteranoa eta 2- kadetea kategorietan, emakumezkoetan, 1x kadetea, 1x gaztea eta 4x gaztea, mutiletan; 2 zilar, 1x haurrak

eta 8 beteranoa, mutiletan; eta 2 brontze, 1x haur emakumezkoa eta 1x absolutu gizona.

Raspas Arraunek 6 domina lortu zituen: 4 urre, 1x, 2x eta 4x absolutuan, nesketan, eta 2x absolutuan gizona; mutiletan ere, zilar bat 4x absolutuan eta, azkenik, brontzea beteranoen 2x mailan.

Belako 60. Eskarra Saria

Hogeita hamar ontzi inguruk parte hartuko dute larunbat honetan, hilaren 21ean, Eskarra-Norwealth Sarian, Kantauri itsasoko belaren proba klasikoetako batean. Marítimo del Abra (RCMA-RSC) elkarteak antolatutako proba honek 60. edizioa bete-ko du aurten. Eguerdian, 13:00etan,

abiatuko da, eta irteera lerroan kurtzero klaseko ontziak eta J80 dibisioko monotipoak egongo dira.



Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, ERREFERENTZIA MUGIKORTASUNEAN

Konpromisoak betetzen jarraitzen dugu. Bai, gure hitza betetzen jarraitzen dugu, orain dela bi urte Getxoko bizilagunei eman genien hitza betetzen jarraitzen dugu. EAJ-PNVn hiri-autobusaren prozesu pilotu bat hasia planteatu genuen gure hiriguneak atseginagoak izan daitezzen, ingurumen eta mugikortasun jasangarriaren beharrak ahalik eta gehien errespetatzeko.

Eta EAJ-PNVk aurkeztutako konpromisoak errealitate bihurtzen ari dira, nahiz eta epeak ez diren beti gustatuko litzaizkigukeenak.

Getxo Buserako ditugun beharrei begira ekarpenak egiteko denboran murgilduta gaude; hiri-autobusak lagunduko digu Getxoko auzoetatik urrutien dauden eremuak hiriguneekin eta funtsezko osasun-, garraio-, erosketa- edo topaketa-zer-



bitzuekin lotuta egon daitezten.

Orain, udal autobus bat prestatzeko zer behar ditugun planteatzeko unea da. Izan ere, autobus horrek bizitza erraztu ahal izango die beste garraio-sistema batzuk

erabiltzeko aukerarik ez dutenei edo, ingurumen-kontzientzia dugunoi eta ibilgailu pribatua erabiltzen ez dugunoi, ezta bidaia laburretan ere.

Konpromiso horiei BizkaiBizi sistema

gehitzen diegu garraio jasangarri alternatibo gisa, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan. Bestalde, gure auzoetako mugikortasunaz, jasangarritasunaz eta adeitasunaz ari garela, Areetako erdiguneko obrak ditugu, Kale Nagusia oinezkoentzat jartzeko bigarren faseko lanekin. Maximo Aguirreren Bulebar berde bikainaz eta Getxo eta Bilbo lotuko dituen Bidegorriaz gozatzear gaude, eta mugikortasun iraunkorrari bultzada handi honetan espazioak gehituko ditugu. Proiektu interesgarria da, baita Europarentzat ere, eta hiru milioi euro baino gehiagorekin finantzatu ditu Areetako zentroa XXI. mendeko ingurumen eta gizarte kontzeptuetara egokitzeko lanak: ingurumen errespetua, mugikortasun jasangarria, eta pertsona ekintza politikoen ardatz gisa.

Getxoko EAJ-PNVk lanez, zorrotz eta erantzukizunez betetako konpromisoak.



AREETAKO OBRAK ATZERATU EGIN DIRA ETA UDALAK EPEAK ETA KOSTUAK LUZATU DITU

Areetako obrak 2024ko irailean hasi ziren, eta berriz ere atzeratu dira, **Udalak Kale Nagusia eta Maximo Aguirre** oinezkoentzako bihurtzeko lanetarako **epeak luzatzea** erabaki ondoren, orain **abuztura eta uztaiera arte luzatuko baitira, hurrenez hurren**. Gainera, Kale Nagusiaren kasuan, **aurreikusitako aurrekontua handitza** onartu da.

Bitartean, ostalariek euren eguneroko jarduera mugatuta ikusi dute **gaizki planifikatutako obregatik**, euren diru-sarrererei zuzenean eragiten diete eta **udaberrian** amaitu behar ziren. Horregatik,

alderdi honetatik ohartarazi genuen obra horiek faseka egin behar zirela in-paktua minimizatzen, baina gobernu taldeak bat-batean egitea erabaki zuen, ondorioei erreparatu gabe.

Horrekin, joan den martxoan **TAO tarifa kaltuentzat %50 murriztea** proposatu genuen. Ez hori bakarrik, izan ere, **terrazen eta zaborren tasetan hobariak** ematea ere proposatu genuen. Hala ere, proposamen horietako bakar bati ere ez zaio erantzun. Beste behin ere, atzerapenak eta konponbiderik eza bizilagunei egokitu zaizkie.



ehbildu

GETXON ETXEBIZITZA HUTSAK MOBILIZATZEKO LEHENENGO URRATSAK, HERRITARREN ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATZEKO

Getxon 900 etxebizitza baino gehiago ditugu egun hutsik, eta egoera hori guztiz onartezina da etxebizitza duin bat bilatzen ari diren herritar ugarietzat. Urteak daramatzagu alokairuaren prezioak Euskal Herriko garestienetakoak direla salatzen, eta egoera honek gazteak herritik alde egitera behartzen ditu. Baina ez dira gazteak bakarrik: gero eta herritar gehiagok zailtasunak dituzte alokairu bat ordaintzeko edo etxebizitzaren gastuei aurre egiteko.

EH Bildutik etxebizitza eskubidea erdigunean jartzea eta udalaren esku

dauden neurri guztiak erabiltzea eskatu dugu, eta horretarako mozio bat aurkeztu dugu Osoko Bilkuran. Gure proposamena onartu da eta pozik gaude Udalak etxebizitza hutsak mobilizatzeko prozesuari ekingo diolako. Lehenengo urratsa izango da 9 hilabeteko epean hutsik dauden etxebizitzaren errolda eguneratzea. Gaur egun daukagun azken datua 2018koa da, eta badakigu egoera nabarmen aldatu dela azken urteotan.

Errolda hori eskuratu ondoren, Udala jabeekin harremanetan jarriko da,

etxebizitza horiek alokairu publikora bideratzeko dituzten aukerak azaldu eta sustatzeko. Horretarako, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak eskura dituzten laguntza eta neurriak jakinaraziko dizkie.

Azkenik, Euskadiko Etxebizitza Legea aplikatuko da, berme juridiko guztiekin, etxebizitza horien erabilera sustatzeko. Gure helburua da etxebizitza merkatu basatiaren menpe egotea amaitzea eta herritarren duintasunaren zerbitzura jartzea. Egoera larria da, horregatik arduraz eta konpromisoz

jokatu behar dugu, herritarren etxebizitza eskubidea errealitate bihurtzeko.

Halaber, gure ustez ezinbestekoa da Udalak baliabide pertsonal eta ekonomikoak jar ditzan prozesua arrakastatsua izan dadin. Ez dugu besterik espero, etxebizitza duina eskubide bat baita eta ez negozio aukera bat. Gure lana izango da prozesu hau jarraitzea, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bermatuz. Getxon etxebizitza hutsen kopurua murriztea eta alokairu merkatu justuago bat sustatzea gure lehentasun nagusietako bat izaten jarraituko du.

PSE-EE
PSOE

EKAINAREN 28AN, SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNAZ HARRO.

Ekainaren 28an, **LGTBIQ+ kolektiboaren harrotasunaren eta sexu-askapenaren Nazioarteko Eguna** da; garrantzitsua da **eskubideak, ikusgarritasuna eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko errespetua** aldarrikatzeko. Lortutako aurrerapenak ospatzeko eguna da, baina baita oraindik egiteko bidea dagoela gogoratzeko ere. PSE-EEtik, **persona guztien berdintasun, inklusio eta as-**

katasunarekin dugun konpromisoa berresten dugu, haien identitatea edota orientazio sexuala edozein dela.

Alderdi Sozialistak kudeatzen duen Udaleko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako jardueren helburua da sentibilizatzea, **LGTBIQ+ kolektiboaren bizipenak ikusaraztea** eta gaur egun oraindik pertsona askok aurrez aurre

dituzten diskriminazio egoerei buruz hausnartzea. Igandean, hilak 29, San Nikolas plazan **“+D2 Impro”** ikuskizuna izango da, umore eta begirada feministatik pentsatzera gonbidatuko duena. Gainera, Gurarin Aldarteren **“LGTBIQ+fobia”** erakusketa bisitatu ahal izango da, baita Mer Gómezen **“Hermafroditas del siglo XXI”** liburuaren aurkezpena joan ere.



PALESTINA

Palestinako herriak bizi duen sarraskia gorabehera, Getxoko Udalak isilik jarraitzen du. Mozioak aurkeztu ditugu, adierazpen instituzional baterako, sarreran kontzentrazioak egiteko eta Palestinako bandera ikusarazteko proposamenak. Eta ezer ez. Guk ez diogu Palestinari buruz hitz egiteari utziko eta bakea, justizia eta Israelgo estatu sionistaren aurkako boikota eskatzen jarraituko dugu.